

**PETRONORREK, KONTRATU ENPRESEK, ABANTO, MUSKIZ NAHIZ ZIERBENAKO
UDALEK ETA SOMORROSTRO PRESTAKUNTZA ZENTROAK LANKIDETZA HITZARMENA
SINATU DUTE INGURUKO LANGABETUEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO**

Petronorrek, kontratu enpresek, Abanto, Muskiz nahiz Zierbenako Udalek eta Somorrostro Prestakuntza Zentroak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute birfindegiaren inguruko udalerrietako langabetuen enplegagarritasuna hobetzeko.

Petronorrek, mantentze-lanetarako enpresa kontratistekin eta Somorrostro Prestakuntza Zentroarekin batera, batetik, fintze-instalazioetan beren funtzioak bete behar dituzten pertsonen profil profesionala eta, bestetik, profil desberdinetan berezko gaitasunak lortzeari atxikitako prestakuntza definituko ditu. Gainera, sinatu duten hiru Udalekin, mantentze-lanetarako kontratek udalerriri horietako langabetuak kontrata ditzaten sustatu eta erraztuko du.

Hitzarmenak Udalek laguntzen bitartez langabetuen prestakuntzan ekonomikoki laguntzeko baldintzak eta konpromisoak arautu eta zehazten ditu. Helburua horien enplegagarritasuna hobetzea eta Petronorren findegiaren instalazioetan zerbitzua ematen duten enpresa kontratistei laguntza eskaintzea da.

“ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA” IKASTAROAK

Hasieran, 2 ikastaro irakatsiko dira “enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza” izenburupean. Bakoitzak 62 ordu iraungo ditu eta guztira 30 partaiderentzat izango dira (ikastaroko 15 pertsona). Proporziozko banaketa egingo da: Abanto-Zierbenako 12 ikasle, Muskizko 12 eta Zierbenako 6.

2016ko maiatzaren 16an hasiko dira eta aldi berean irakatsiko dituzte, bata astelehen eta asteazkenetan eta bestea astearte eta ostegunetan, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

Prestakuntzaren edukiak aldeztu aurretik Petronorrek, enpresa kontratistek eta Somorrostro Prestakuntza Zentroak adostu dituzte. "Gai" "Ez-gai" modura kalifikatuko dira. Ikastaro bakoitzaren kostua 6.200 eurokoa da.

Hasierako bi ikastaro horietan parte hartzeko hurrengoak ezinbestekoak dira:

- 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen Abanto-Zierbena, Muskiz edo Zierbenako udalerrietan errolatua egotea.
- Eskaera egitean eta ikastaroa hastean langabezian egotea.
- Kontratistarentzat segurtasunari buruzko 10 orduko ikastaroa aldeztu aurretik egina eta indarrean izatea.
- Gainera, lehentasuna emango zaie industriaren edota eraikuntzaren sektorean esperientzia duten pertsonari.

Ikastaroa amaitutakoan, Somorrostro Zentroak "gai" kalifikazioa lortu duten partaideen zerrenda eskuratuko die hiru Udal sinatzaileetako Tokiko Garapen Agentziei eta enpresa kontratistek. Hala, langileen beharrezko Mantentze-lan Elektromekanikoen Laguntzailearen profilararekin estali ahal izango dituzte, ez bakarrik Petronorren findegian bertan, baita Repsol taldearen edozein tokitan ere.

Enpresa kontratistek, ahal duten neurrian, bi ikastaro horietan parte hartzen duten pertsonak hautespen prozesuetan eta beren kontratazio beharretarako hautagaiak izan daitezkeen konpromisoa hartzen dute.

Bestalde, hiru Udalek Mantentze-lan Elektromekanikoen Laguntzailea mailarekin "Enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza" izenburupean gutxienez bi ikastaro finantzatzeko konpromisoa hartzen dute. Halaber, prestakuntza horren kostu guztia beren gain hartzen dute, Abanto-Zierbena, Muskiz eta Zierbenako udalerrietan errolatutako pertsonentzat baitira.

Muskizen, 2016ko maiatzaren 12an